

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lurdes Badiola Aranguren

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1960)*

Aurkibidea



Biografia



Kale-baserri batean jaioa, baina kalean bizi izandakoa. Antzuolako hitanoa jasotzeko elkarrizketatu genuen, [Pello Legorburu](#)rekin batera. Gurasoek hika egiten zioten, amak bereziki. Senideen artean zuka egiten dute, baina lagunekin hika egiten du (koadrilan gehienak baserritarrak dira). Senarrarekin ere hika egiten du ([Joxe Mari Mendizabal](#) ere elkarrizketatu dugu). Bi semeei zuka egiten diete. Umetan Uzarragako eskolan ibili zen, gero kalean eta ondoren Batxilergoa egitera Bergarara joan zen, mojetara.

Zintak

ANT-135

- **Proiektua:** Antzuolan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-03-15
- **Iraupena:** 102 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Pelloren emaztearen grina hitanoarekiko

- **Erref:** ANT-135/004
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Pelloren andreak euskararekin eta hitanoarekin ardura handia izan duela kontatzen dute. Kuadrilan hika berari esker egiten dutela dio Lurdesek, eta etxean alabei hika egitearena ere haren gogoari esker gertatu dela.</p>

2. Hika etxetik eta bizilagunengandik

- **Erref:** ANT-135/007

- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Etzetik jaso dute hika. Lurdesi amak beti egiten zion hika. Bizilagunekin hika egiten zuela dio Pellok. Emakumeei hika ondo egitearena gerora ikasiko zuela uste du Pellok; arrebeekin hika egiten du beti. Ohituraz egiten dela hika edo zuka diote.</p>

3. Toka eta noka erraz

- **Erref:** ANT-135/008
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:17:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Toka eta noka erraz egiten dutela diote. Pellok dio enpresako gerenteari batzuetan hika eta beste batzuetan zuka egiten diola, gaiaren arabera. Andreari lehen baino gehiago egiten dio zuka Pellok. Lurdesek dio berari ere gauza bera gertatzen zaiola senarrarekin.</p>

4. Hika konfidantzan

- **Erref:** ANT-135/009
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Kuadrilakoekin eta koinatekin hika egiten du Lurdesek. Bizilagun zaharragoekin ere egin izan du eta errieta egin izan diote. Konfidantzak eragin handia daukala dio Pellok; adibidea jartzen du. Neskei lantokian hika egiten die propio Pellok, eta orokorrean gazteei ere bai.</p>

5. Gazteekin hika erraz, ezezagunekin nekez

- **Erref:** ANT-135/011
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:23:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Zuka ohitutakoari hika ezin izaten diola egin dio Lurdesek. Pellok, berriz, adinaren arabera: gazteei erraz, adinekoei nekez. Norbaitek gurasoei hika egiten dienean, atzerakada ematen diola dio Pellok. Lurdesek ezezagunei kostata egiten die hika, eta neskei bereziki nekezago.</p>

6. Toka gehiago entzuten da noka baino

- **Erref:** ANT-135/012
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:23:44. **Bukatu:** 00:26:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Antzuolan hika beraiek baino nagusiagoek zein gazteagoek egiten dutela diote, baina gizonezkoek. Neska gazteek ez dutela egiten dio Lurdesek. Pelloren alabek haien artean hika egiten dute, baina ez da joera orokorra. Pellok dio landu beharrekoa dela, aberasgarria delako eta bestela galdu egingo delako.</p>

7. Seme-alabei hika oso gutxik

- **Erref:** ANT-135/015
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:30:54. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lurdesek biei zuka eta Pellok alabei hika egiten diete. Seme-alabei hika oso etxe gutxitan egiten dietela dio Lurdesek.</p>

8. Elizak zuka hobesten zuen

- **Erref:** ANT-135/017
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:33:37. **Bukatu:** 00:35:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lehen hitanoa baserritarren kontua zela diote, kaletarrek erdaraz egiten zutela gehien bat. Eliza inguruan zuka egitea hobesten zela dio Lurdesek.</p>

9. Hika jarduteko, euskara ondo jakin behar

- **Erref:** ANT-135/019
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Lurdesen erraina hika ikasten dabil, baina hari ere alabarekin ez dio irtetzen. Hika egiteko, euskara ondo menperatu behar dela dio Pellok; bertsolaritza eredutzat jartzen du.</p>

10. Hitanoaren, eta bereziki nokaren, galera

- **Erref:** ANT-135/023
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:42:39. **Bukatu:** 00:45:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Beren gurasoen garaian, emakumeek zein gizonek hika egiten zutela diote. Erdara nagusitu izanari egozten dio hitanoaren galera Pellok. Lurdesek uste du gizonek mantendu egin dutela harreman gehiago izan dutelako elkarrekin, emakumeek baino.</p>

11. Erdaraz, prestigioa lortzearen

- **Erref:** ANT-135/025
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:45:58. **Bukatu:** 00:47:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Emakumeek erdararako joera handiagoa izan dutela diote. Zapalduta egonda, erdararekin hobeto ikusita egongo liratekeenaren ustean arituko zirela horrela emakumeak, esaten du Lurdesek.

12. Euskaraz egitearren, lankideek gutxietsi, pazienteek eskertu

- **Erref:** ANT-135/026
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:47:03. **Bukatu:** 00:48:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Lurdesek kontatzen du Aita Mennin lan egin zuela eta langile denak erdaldunak zirela. Lankideek gutxietsi egiten zutela dio, eta bertako paziente euskaldunek, ostera, asko eskertu.

13. Animaliei haserre egiteko hika, erakartzeko zuka

- **Erref:** ANT-135/029
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:51:22. **Bukatu:** 00:54:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Pellok dio animaliei hika egin izan diela beti. Animaliak erakartzeko zuka eta haserre egiteko hika egiten zaiela diote.</p>

14. Hitanoa berreskuratzeko, esaldi batzuk modan jarri

- **Erref:** ANT-135/035
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Gazteek hitanoa erabil dezaten lanketa handia egin beharko litzatekeela uste du Lurdesek. Hika esaldi batzuk erabiltzeko modak lagundu dezakeela uste du Pellok.</p>

15. Auzo eta herri txikietako lagunak

- **Erref:** ANT-135/044
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:14:15. **Bukatu:** 01:15:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Lehen baserritar emakumeek erdaraz egitearen arrazoietakoa bat konplejua zela dio Lurdesek. Umetan Bergarara eskolara joandakoan, auzo edo herri txikietako lagunak izaten zituen Lurdesek.

16. Telefonica zentrala eta balkoietako zapiak

- **Erref:** ANT-135/054

- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:21:19. **Bukatu:** 01:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonia oso berandu ipini zutela diote. Telefonica zentrala non zegoen kontatzen du Lurdesek, baita nola moldatzen ziren ere. Balkoian zapia aterata, elkar ulertzen zutenekoa kontatzen dute.

17. Antzuolako hizkera

- **Erref:** ANT-135/058
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:27:31. **Bukatu:** 01:30:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Beste euskalki batzuetakoek ulertu ez diotenekoa kontatzen du Lurdesek. Pellok dio oso euskara aberatsa daukatela eta denean moldatu dela bere euskalkiarekin. Harreman motak elkar ulertzea errazagoa izatea dakarrela dio Pellok.

18. Tratanteak Arabara erdaraz ikastera

- **Erref:** ANT-135/059
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:30:53. **Bukatu:** 01:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Pello tratantea izan da. Lehenago Arabara joaten ziren tratanteak erdaraz ikastera. Pelloren aittajunak zamorarrak etxera ekarri zituen morroi, semeei erdaraz erakutsi ziezaieten, baina zamorarrek euskaraz ikasi omen zuten.

19. Larru-lantegiak; kartutxerak egiten

- **Erref:** ANT-135/063
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 01:38:36. **Bukatu:** 01:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Lurdesen amak kartutxerak egiten zituen eta anekdota bereziak izaten zituzten. Lau larru-lantegi aipatzen dituzte. Kartutxerak soldaduentzat egiten zituzten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com